

opusdei.org

Mendeurrena betetzen da 27. belaunaldiko poeta eta Opus Deiko kidea jaio zenetik

"Ernestina de Champourcin.
Emakumea eta kultura XX
mendean" kongresua
antolatzen du EHUko Valentin
de Foronda Institutoak

2005 Mar 25

Aurten, 2005.ean, mendeurrena
betetzen da Ernestina de

Champourcin poeta jaio zenetik, 27.
belaunaldia osatu zuten
emakumeetarik bakanetakoa.
Mendeurrenaren harian, haren
oroimenezko zenbait ekitaldi
burutuko da eta horien artean
kongresu bat, orain artean bere
irudiari egin zaizkion omenaldiekin
bat, geurea egin gura dugularik, bere
lanaren eta lan hori bere baitan
hartu zuen kultur giroaren azterketa
sustatuko delakoan. Hortaz,
omenaldia egin nahi zaio Ernestina
de Champourcini, ez soilik bere
bizitza eta lana aztertuz eta ikasiz,
baizik eta, berak bezala, XX mendeko
kulturan emakumezkoen arrasto eta
eragina utzi zuten beste figura
batzuenganako hurbilketaren bidez.

Hori dela eta, Valentín de Foronda
Gizarte-Historiarako Institutuak eta
Nafarroako Unibertsitatea
fundazioak antolatu dute
Nazioarteko Kongresua: ERNESTINA

DE CHAMPOURCIN. EMAKUMEA ETA KULTURA XX MENDEAN

Vitoria – Gasteiz, 2005.eko urriaren 25, 26 eta 27an

Proposaturiko arloak

- Emakumea eta kultura gerraren aurretik
- Ernestina de Champourcinen bizitza eta lana
- Emakumea eta kultura erbestean eta trantsizioan.

Antolakuntza-batzordea

Santiago de Pablo (Euskal Herriko Unibertsitateko garaiko historiako katedraduna), José Ángel Ascunce (Deustuko unibertsitateko literaturako irakaslea), Rosa Fernández Urtasun (Nafarroako unibertsitateko literaturako irakaslea) eta Javier Ugarte (Valentín de Foronda institutuko zuzendaria

eta Euskal Herriko Unibertsitateko garaiko historiako irakasle titularra).

Zientzi batzordea

José Ángel Ascunce (Deustuko unibertsitatea), Guillermo Carnero (Alacanteko unibertsitatea), Biruté Cipliauskaite (University of Wisconsin, Estatu Batuak), Rosa Fernández Urtasun (Nafarroako unibertsitatea), Serge Salaün (Université Paris III. Sorbonne Nouvelle, Frantzia), James Valender (Mexikoko ikastetxea).

Komunikazioak

Komunikazioek, gehien delarik, 15 orrialde izanen dituzte luze (30.000 karaktere, hutsuneak barne).

Maiatzaren 15a baino lehen komunikazioaren laburpena igorri beharko da, 10 eta 15 lerro arteko luzeraz. Ekainaren 15erako, ostera, komunikazioa onartu den edo ez jakinaraziko da. Behin-betiko

komunikazioa urriaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da.

Parte-hartzea baieztatu duten hizlariak

Alicia Alted (UHUN, Madril) José Ángel Ascunce (Deustuko unibertsitatea) Juan Cano Ballesta (University of Virginia, Estatu Batuak) Francisco Caudet (Madrileko unibertsitate autonomoa) Biruté Cipliauskaite (University of Wisconsin, Estatu Batuak) Alejandro Finisterre (Entsegugilea eta editorea) Julio Neira (UHUN eta Generación del 27 kulturguneko zuzendaria) Emilio Miró (Madrileko unibertsitate konplutentsea) Serge Salaün (Université Paris III. Sorbonne Nouvelle, Frantzia) Gloria Solé (Nafarroako histori ikasketetarako elkarteak) Arturo del Villar (Literatur kritikoa eta editorea)

Kongresuaren inguruko albiste
ezberdinen berri jakiteko, jo ezazu
www.vc.ehu.es/ih web gunera.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/mendeurrena-betetzen-
da-27-belaunaldiko-poeta-eta-opus-
deiko-kidea-jaio-zenetik/](https://opusdei.org/eu-es/article/mendeurrena-betetzen-da-27-belaunaldiko-poeta-eta-opus-deiko-kidea-jaio-zenetik/) (2026 Mar 11)